ONDORIOAK

Gertatzen diren gertakariak edo beste batzuen ondorio direnak

Luisa Martínez Lorenzo

(Galiziako Zientzia Ikerketen Kontseilu Nagusia)

Aurkene Belasco Armendarizen lankidetzarekin

Itzulpengintza:

Maitane Krutxaga Armendariz, Jon Krutxaga Armendariz

Jatorrizko izenburua:

CONSECUENCIAS. Feitos que acontecen ou resultan doutros.

2023ko abenduaren 8an, TOCONAO itsasontziak hainbat edukiontzi galdu zituen kostalde atlantikoan; horietako batek plastikozko 26,25 tona pinporta zituen, bakoitza 25 kiloko 1.050 zakutan banatuta.

2024ko urtarrilak 5, 14:05. Area Maior hondartza, Muros, A Coruña.





TOCONAOren aseguru-etxeak, enpresa pribatu baten bidez, inguruko boluntarioak kontratatzen ditu, kaltetutako hondartzetako isurketa eskuz kentzeko. Ni horietako bat naiz.

Ez dago metodo eraginkorrik mikroplastikoak biltzeko. Hasieran, eskuz egiten da, banan-banan, eta hareatik, algetatik eta atxikitzen diren gainerako hondakinetatik bereizten dira. Prozesua oso motela eta eraginkortasun gutxikoa da.

Aurkitzen ditugun pinporten zati txiki batek forma eta kolore ezberdinak ditu. Batzuk oso degradatuta daude. Oharkabean pasa diren aurreko isurketetatik datozela susmatzen dugu.



TOCONAOko 20 bolatxo zuri hauek nirekin datoz etxera...

Etxean, 20 pinportekin.







BIDERAEZINA

Ez duela aurrera egiteko aukerarik

TOCONAOko edukiontziak erori eta bi hilabetera, isuria Asturiasera, Kantabriara eta Euskadira zabaldu da.

Galizian, pinportak biltzeko lanak aurrera jarraitzen du hondartzetan.

2024ko otsailaren 12an, 11:25. Lariñoko hondartza, Muros, A Coruña.
"ATZOKO EGUNEAN IZANDAKO KARLOTTA BORRASKAREN ONDORIOEK, GALIZIAN 200 km/h-tik GORAKO HAIZEAK ERAGINEZ, ORAINDIK NEGUAN GAUDELA GOGORARAZTEN DIGUTE."

Lanaldiaren amaiera



Gaur denboralearen ondorioak nabaritu dira. Bildutakoa zenbatetsi dut eta 850 pinporta/m² ateratzen zaizkit.

Hor kanpoan egongo dena...

Ni gehiago kezkatzen naute poltsa horietan dauden 80 kilo zaborrek...

Gaur bakarrik jasotakoa... Hondartza honetan bakarrik...

Etxean.
ATSEKABEA
Nahigabea, ezkortasuna, barne-kezka.
ETICA de REWILDING Cristian Mujano

2024ko otsailaren 19a, 10:00. Lau egunean behin, bi atseden egun hartzen ditugu.

Gaur ez dut lanik egiten. Nire hozkailua hutsik dago, beraz, etxetik zuzenean supermerkatura noa. Deskonektatu behar dudala sentitzen dut.

Mandatuak amaitu eta etxera itzuli naiz.





JASANEZINA

Bereziki ekologian, luzaroan mantendu ezin dena baliabideak agortu gabe edo ingurumenari kalte larria eragin gabe.



2024ko otsailak 20

Nire bigarren egun librea WhatsAppeko elkarrizketa batekin hasi da.



Amigacha
Ezer ez ba, gora plastikoa...
Ez, materiala beharrezkoa izateak ez du esan nahi materiala erabiltzea beti justifikatuta dagoenik. Plastikoaren gehiegizko erabilera dago, batez ere bizitza laburrekoa, eta horrek gehiegizko ekoizpen JASANEZINA dakar.
Kolapsatzeko zorian gaude. Onar dezagun.
Alternatibak daude.
Gobernuei exijitzea, botoarekin jardutea? Horrek ez du funtzionatzen. Boterera iristen direnean ahaztu egiten zaie. Jende arruntak ezin dugu ezer egin.
Norbanako bakoitzak aldatzeko ahalmen handia du kontsumoaren bidez, eta askoz gehiago plastikoaz ari garenean.
Ez dut ikusten.
Kontua ez da hondartzak garbitzea, ahalik eta plastiko gutxien kontsumitzea baizik.
Ez dakit.
Itzultzeko ontziak, elikagaiak elikagai-paperean, kartoia... Pertsona bakoitzak plastiko gutxiagorekin betetzen badu erosketa-saskia, korporazioek eta supermerkatuek nabarituko dute eta horren arabera jokatuko dute. Oso sentiberak dira kontsumitzailearen iritziarekiko...
Jarri adibide bat...

Amigacha
Horren adibide garbia da gizartearen presioagatik palmondo olioa produktu askotatik kentzea. Orain marka askok informazio hori erabiltzen dute erakargarri gisa.
Ez nuen hortan pentsatu...
Palma-olioaren mundu mailako eskari erantzuteko, baso tropikalak suntsitzen dira, arriskuan dauden flora eta fauna espezieen habitata direnak.
Izugarria!
Jendea gero eta kontzientziatuago dago eta ez du suntsipen horren parte izan nahi.
Ba bai boteretsuak garela...
Informatu, kontzientzia hartu eta jardun egin behar da. Bakoitza gure errealitate txikietatik abiatuta eta gure aukeren arabera, baina egin egin behar da. Erosten dugun produktu bakoitzak eta kontratatzen dugun zerbitzu bakoitzak ingurumen-aztarna bat du.
Aurkitzen duguna kontutan izanda, zentzua du: ontziak, eguneroko bizitzako objektuak...
Gure ekintzek ingurumenean eta gizartean duten eraginaren jakitun izanik kontsumitzea. Gakoa hori da.
Jogurt makina bat erosi dut. Balio du?
Jogurt makinadun boluntarioa? Hori GOI mailako aktibista izatea da!
Jajaja!

Eta orduantxe, hondartzetan pinporta eta plastiko kiloak eta kiloak bildu ondoren, ulertu nuen kontsumoa dela ozeanoetan zaborraren aurka borrokatzeko lehen lerroa.

Aldaketa bat-batean sortu zitzaidan eta, egun horretan bertan, ekintzara pasatzea erabaki nuen, nire errutina itxuraz hutsaletik.

LaPeCa
VAL

ines
PRÓXIMO ESTRENO
EL REWILDING DEL AMOR
Libreria Farinelli
¿Para qué sirven las aves? ANTONIO SANDOVAL
Nº 777
EL DÉCIMO PREMIADO
LOTERÍAS Y APUESTAS DEL ESTADO
Hara, bezero berria! Gaur zorioneko gaude. Eskerrik asko tokiko merkataritzaren alde egiteagatik.
Froiteria VALSAIN
LA VACA NEGRA
Pub

Frutarekin pertsonekin bezala gertatzen da. Ez da itxurak gidatzen utzi behar.
Itxura txarrena dutenak interesgarrienak izan daitezke!
MEL
MEL
Se alquila
SEMINARIO Sostenibilidad y medioambiente desde las instituciones culturales ROSARIO TORIL
VISITAS GUIADAS BOSQUES de VALSAIN Antonio Moreno
NOIA LIMPA
MAR de FABULA
LaPeCa





KONTZIENTZIA

Pertsona bati buruz: Zerbaiten berri duela edo horretaz ohartzen dela, batez ere norberaren ekintzez eta horiek duten ondorioez.